

Aretxabaleta,  
1994eko maiatzak 19

# Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS  
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.  
ARETXABALETA



## Txistua bihotzean

• Maltzaga-  
Urbina emaitza

• Elkarriren  
jaialdia

• Kontu Zaharrak

52. zka.



3. Boteprontoan  
Zer egiten duzu buzoian jasotzen du  
zun propagandarekin?
4. Hamabostean behin  
Joseba Larrinaga Berlinera.
5. Hamabostean behin  
I.G.P. etako emaitzak
6. Hamabostean behin  
Elkarriren jaialdia Atxabaltan
8. Hamabostean behin  
Iñaki Iturriri Ongi etorria
10. Erreportaia  
Demetrio Iriarteri, Urrezko domina.
14. Arlutz Saskibaloi txapelketa
15. Kontu Zaharrak
18. Hurretik  
Inma Migel
19. Agenda eta Aretxazoka

## DEMETRIONDAKO BERTSUAK

*Oñatin jaixo ei zan  
Atxabaltarako  
ez da makala izan  
geure herrirako  
txistu obra mordua  
atarata dauka  
gauza larreitxo dira  
ez akordetako  
zorionak hemendik  
Demetriondako.*

*Zeu izan zara aitta  
txistularixena  
lehelengo dantza talde  
eta bandarena.  
Oñatin egin bihar  
dotzue omena  
hemen be jaso geure  
esker beruena  
lan fin egindakuak  
merezi dauena.*

*Jon Sarasua*

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoru **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.



# Zer egiten duzu buzoian jasotzen duzun propagandarekin?



**Antonio Galiano**  
(Langilea)

Irakurri eta zakarrontzira bota. Zerbait interesgarria egoten bada, gorde egiten dut.



**Ana Rosa M. de Agirre**  
(Langilea)

Irakurri eta gero zakarrontzira bota.



**Alberto Etxebarria**  
(Langilea)

Segun zer den irakurri egiten dut, bestela zakarrontzira.

## KARTAK

# Soldaduzkarik gabeko uhartea

Intsumiso adiskide:

Ondo al doa Inkoherentzia-ren itsaso zabalean ahar egiten ari zaren bidaia? Gu, lemazain trebea zarelakoan gaude eta aurrerantzean ere adoretu jarrai dezazun, bultzadatxo bat ematera gatozkizu.

Asko zarete jadanik ur arriskutsu horietarantz ausardia osoz itsasoratutakoak; bakarka hasieran, taldeka gero, "zuzentasunaren" izenean urperatu nahi zaituzten olatuei aurre eginez. Ora-indik Neptunok ez daki (edo ez du jakiterik nahi), alperrik ari dela, batzuk urperatu arren ez duela ezer lortuko. Izan ere, gero eta gazte gehiago aterako da itsaso-

ra, askatasun egarriak eraginda, soldaduzkarik ez dagoen uharteren bila.

Zenbat eta gehiago, orduan eta lehenago aurkituko dugu uharte hori, eta jakin ezazu, gu behintzat laguntzeko prest gaudela, bidaia latz horretarako indarra eta atsedenerako gure kaia eskainiz.

***Bakarrik 1.500 pezeta-  
ren ordainean urtean...***

Eutsi lema eta segi aurrera, soldaduzkarik gabeko uhartea aurkitu arte!!

*Irakasle Eskolako ikasle  
eta irakasleak*





**Joseba Larrinaga**, ekainaren 3tik 5era Albazetera joango da ezindunen mailan Espainiako Atletismo-txapelketan parte hartzera. Bestetik uztailearen 16tik 31ra Berlingo bi lasterketetan hartuko du parte: 5.000 eta 10.000 metrotan. Duela hilabete bat proba erabakior batean izan zen, txapelketa hauetara joateko txartela lortuz. Orain, berriz, erronka berri bati aurre egin beharko dio Albazete eta Berlin aldean. Zorte on Joseba!

## Oharra:

Ohar honen bidez, Aretxagazetak bazkide kanpaina barria hasi duela adierazi gura du.

Aurreko Aretxagazetako bi zenbakitan konturatu zineten moduan, joku barri bat dago. Joku honek erregalu onak dauzka, baina, **Bazkideentzako bakarrik** izango da.

Aurreko aleetan ere hau adierazi genuen, baina hala eta guztiz bazkide ez diren askok parte hartu gura izan dute jokuan. Badakizue, joku barrian parte hartu gura baduzu, **ARETXAGAZETAKO bazkide izan behar duzu.**

Aretxagazetako bazkide egiteko, 1.500 pezeta ordaindu behar dira urtean. Baina 1.500 pezetaren truke, **Aretxagazeta etxean** jasoko duzu, **jokuan parte hartzeko** aukera izango duzu, **euskarari laguntza ederra** emango diozu eta gainera ARETXAGAZETA KULTUR ELKARTEARI kolaborazio handia eskainiko diozu.

**ANGELINES**  
Autozerbitzua



Mitarte, 16

☎ 79 61 42

**"HERRASTI"**  
**AKEITA ETXEA**

Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83

Novedades

MODAN  
DAGOEN  
GUZTIA



Iparagarre, 4  
Tfnoa. 79 21 24



# Maltzaga- Urbina

Interbentzio Gune Partehartzaileetan, Maltzaga-Urbina ardatza-  
ren inguruan hartutako erabakia, dagoeneko, kalean dago. IGPetan  
guztira 303 pertsonak hartu dute parte eta hartutako erabakia binku-  
lantea izango ez bada ere, administrazioak kontutan hartuko ei du.  
Emaitzak ondoren datozenak ditugu:

## Hartutako erabaki desberdinak

- Oraingo bidea berri eta bide azkar berria egin %42
  - Oraingo bidea berri %39
  - Bide azkar berria egin %15
    - Ezer ere ez %2

## Finantzia bideak

- Publikoa %37
- Publiko eta pribatua %36
  - Pribatua %8

## Peajea erabili bidea finantzatzeko

- Bai %29
- Ez %54

## Bilbo-Behobia peajea luzatzea zelan ikusten da

- Oso ondo %6
- Ondo %11
- Erdizka %14
- Txarto %22
- Oso txarto %42

## Garapen ekonomikorako garrantzitsua izango den bidea


- Oso garrantzitsua %25
- Garrantzitsua %49

Emakumearen euskal erakundeak, Emakundek, emakumeen arazoaren inguruan sentibilizazioa bultzatu guran "gero eta gertuago" izenburupean kanpaina bat hasiko du. Atxabaltan maiatzaren 30ean hasiko da kanpaina. Egun horretan arratsaldeko 3.30etatik 7.30etara, Euskal Txokoan bulego informazioa zabalduko da egon daitezkeen kontsultak erantzuteko. Honez gain, 7.30etan Zاراia zinenan antzezlana bat ikusteko aukera izango dugu. Antzezlana horren gaia emakumea izango da.

Berri-zaharrak taldeak zine emanaldia antolatu du maiatzaren 19rako eta ekainaren 2rako. Zاراia zineman, beraz, bi pelikula ikusteko aukera izango dugu. Pelikulak hauek dira: eguenean, "Maitasuna Offean" eta ekainaren 2an "Begira Nork Hitzegin duen Orain". Pelikula hauek euskaraz izango dira.



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria

**ZARAIA**  
**taberna**

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

**MANTEKA ANAIAK**



## Elkarriren jaialdia



Prensaurrekoan, inguruko tailerren egoera azaldu zen

Elkarrik, bakearen aldeko giza mugimenduak, jaialdi bikaina antolatu du maiatzaren 20rako. Jaialdia Atxabaltako Kiroletxean izango da, gaueko 10,30etan. Besteak beste, bertsolariak, jotariak eta abeslariak izango ditugu. Lau bertsolari izango ditugu; Jon Sarasua, Andoni Egaña, iazko Euskal Herriko Bertso txapelketako txapelduna, Xabier Amuriza eta Mendizabal. Jotalariak, berriz, Cascatillokoak izango dira eta abeslaria Erramun Martikorena izango da.


Elkarrik jaialdi honen bitar-

tez bi helburu nagusi lortu gura ditu: elkarrizketa eta akordioaren ideia zabaltzen jarraitzea bate-tik, eta sufritzen ari den egoera ekonomiko larri horretatik irte-tea bestetik. Eta bailarako tailer-ren egoera azaltzeko, Elkarrik astelehenean pentsaurreko bat eman zuen Monterroneko hitzal-di aretoan. Pentsaurrekoan, gai hauek jorratu ziren: bailarako tailerren egoera, jaialdiaren hel-burua eta ikuspegi teknikoak, egoera ekonomikoa, autofinan-tzaketa, dirulaguntza eza eta IV. batzarraren berri eman zen.

## San Pedro jaiak

Eskoriatzako Uudaleko Kul-tura Batzordeak lehiaketa bat an-tolatu du, 1994ko San Pedro jaiet-ako egitarauen azala aukeratzeko. Lehiaketan gura duenak har dezake parte. Edozein eratako lan-ak onartuko dira: collagea, pin-tura etabar. Lanaren neurriek 50X70 izan beharko dute. Gaia Eskoriatzako San Pedro jaiak izango da, eta lanetan "Eskoria-tza, 1994ko San Pedro jaiak" esal-dia egon beharko du idatzita. Sa-ria 25.000 pztakoa izango da eta lanak Kultur Etxean uztailearen 1a baino lehen aurkeztu beharko dira. Dena dela, saria eman barik geld-i daiteke epaimahaikideek gutxienezko maila lortu ez dela uste badute. Bestalde, lanetan ez da jarriko egilea nor den adieraz-ten duen daturik. Hale ere, kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak eta N.A.N. aren zenbakia idatzi beharko da, egi-lea identifikatu ahal izateko. Esa-nak esan, epaimahaia uztailearen 7a baino lehen irabazlearen izena emango du eta erabaki hori ape-laezina izango da.

## EGUZKIGRAF



**Aldizkariak  
Inpresoak  
Bulegoko materialak**

Aretxab. Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943- 79 18 44 Faxa 943-79 29 41






**Otala zelaiko jai**a ospatu zen domekan. Egunean zehar hainbat ekintza egin ziren Otalazelaiko kanpan. Besteak beste, animaliekin jokuak, bertsolariak, trikitilariak eta gaztelu puzgarriak ikusteko aukera izan genuen. Eta gauean, Durana kalean, Aldaba taldeaz dantzaldia izan genuen. Kontuak kontu, jai giroa izan zen nagusi.



**Arabako Gizakia Helburu** familien elkartekoeek Arte-erakusketa antolatu dute Arrasateko Monterronen. Erakusketa maiatzaren 10ean zabaldu zen eta 30a arte zabalik egongo da. Bertan erakusten diren lanak, drogaren arazoaz sentsibizitatuta dauden zenbait artistak emandakoak dira. Erakusketa oso polita da, beraz merezi du bertara joateak.



## HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte Kalea, Z/G  
Tfnoc: 79 85 57

## IZOTZ TABERNA

Mitarte, 16  
☎ 79 73 65






Konturatuko zinetenez, Atxabaltako kaleetan zehar gehitu egin dira bai beirarentzako bai paper eta pilentzako edukiontzi edo kontenedoreak. Beraz, badakizue orain zer egin behar den eta non utzi behar ditugun zabor horiek..



Tril emakume taldeak, eskulaneetako ikastaro bat antolatu du. Bertan, partehartzen ari diren emakumeak artista hutsak direla erakutsi digute egiten ari diren lan zoragarrien bitartez.

## Ongi etorria, Iñaki Iturriri



Iñaki Iturri, Atxabaltako semea, lau urte t'erdia kartzelan egon ondoren aske utziko dute datoren zapatuan. Hau dela eta, Atxabaltan ongi etorria egingo zaio. Ongi etorriko ekintzak arratsaldetako 7etan hasiko dira. Ordu horretan Gatzagan konzentrazioa egongo da, ondoren kotxe karabanen Atxabaltara etortzeko. 7.30etan ongi etorria Mitarte enparantzan eta ostean, ekintza politikoa, trikitilariak eta bertsolariak. 9etan herri afaria.

Txartelak Arlutz eta Urbaltz tabernetan saltzen dira.

## GUREA

TABERNA  
JATETXEA

Durana Kalea  
Tfnoa: 79 20 64



**MAPFRE**

Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tfnoa: 77 11 76

## MATIKUA

**Taberna**

Azatza auzoa

☎ 79 16 68

**ARETXABALETA**



## Pleno berezia Udaletxean

Joan zen astelehenean pleno berezia egin zen Udaletxeko pleno aretoan. Guztira, eztabaidarako 8 puntu zeuden. Puntuz puntu erreposoa eginez: 1) Gizarte sektoreak euskalduntzeari buruzko hitzarmena. 2) Aurre espedientea, Durana kalea 5. 3) 22A zonaldeko konpentsazio proiektuaren behin betiko onarpena. 4) Jose Nuñezen talde aldaketa elkarkidetzan. 5) Hauteskunde mahaia-tako kideen hautaketa zozketa bidez. 6) Futbol zelaiari buruzko baldintza ekonomiko administratibo eta preskripzio teknikoan pleguen onarpena. 7) Basabe buruzko hirigintza informazioaren irakurketa eta hitzarmen proposamena. 8) Euskal preso politikoen eskubide penitentziario eta penalen errespetuari buruzko mozioa, azken hau HBk aurkeztu zuen.

Aitatu den hitzarmena 8 baiezko botorekin onartu egin zen. Alde EAK, HBk eta EAJk botatu zuten eta PSOE abstenitu egin zen. Hitzarmen hau, Atxalbaltako Udalak eta Loramendi kultur elkarteak sinatu dute, euskararen normalizazio prosezuan



Mozio desberdinak eztabaidatu ziren Pleno Aretoan

urrats berri bat emateko asmoz. Hau dela eta, hitzarmena 1995eko apirila arte sinatu da eta hitzarmen hau aurrera eramateaz Jon Zuazabeitia arduratu da. Bestalde, azken mozioari dagokionez, hau ere onartu egin zen 7 botorekin. EAKo hiru zinegotziek eta HBko laurok baietza eman zuten, EAJko zinegotzi biak abstenitu egin ziren, horrelako mozioetan ohizkoa den bezala. PSOE / PSE-ko kasu berezia izan zen, Iñaki

Pierruguesek kontra botatu zuen eta Angel Sagarribai, barriz, abstenitu egin zen. Abstenzioaren zergatia, Sagarribaik azaldu zenez, bere alderdikideak mozio honen aurka aurkeztu zuen emendakinen berri izan ez zuelako izan zen. Dena dela, emendakin horren bozketa egin zenean, onartu barik gelditu zen aldeko botu bakarra jaso zuelako, EAK eta HBk kontra botatu zuten, eta EAJk eta PSOEko Sagarribai abstenitu egin ziren.

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34  
79 31 87

... **ARETXAGAZETA**  
*etxean jasotzez gain ...*



# Demetrio Iriarteri Urrezko domina



Demetrio Iriarte, berak sortu zuen dantza taldearekin

## Demetrio Iriarte Mujika

- ✓ Oñatin jaio zen 1915eko abenduaren 21ean.
- ✓ Bederatzi urte zituenean, Oñatiko Magdalen auzoko jaietan, lehendabizi jotzen agertu zen jendearen aurrean.
- ✓ Gerra Zibilaren ondoren Aretxabaletan jostun lanetan finkatu zen eta ondoren txistulari moduan.
- ✓ Musikarekiko zaletasun honek, solfeoko klaseak dohain ematera animatu zuen, hainbat neska-mutil pasatu dira Demetrioren klaseetatik.
- ✓ Demetriok Aretxabaletako herriaren historian, Musika banda eta dantza talde bat ere sortu zuen. Bandaren sorrera zela eta, 1992. urtean Aretxabaletako Udalak Aretxabaletako Herriaren Urrezko Domina eman zion.
- ✓ Zuzendari lanak ere askotan egin ditu, Musika Bandatik aparte, Txistulari Alderdiak ere zuzendu ditu. Gaur egun Gipuzkoako Jubilatuen Txistulari Taldearen Zuzendaria da.
- ✓ Musika konposaketan makina bat pieza eginda dauzka, Txistulari aldizkariendako eta baita Musika Bandarako. Gaur egun konposaketan ari da buru belarri, tronbosi baten ondorioz ez baita txistuz interpretatzeko gauza.



*Maiatzaren 29an jasoko du Demetrio Iriartek Euskal Herriko Txistulari Elkarteak emango dion Urrezko Domina.*

*Demetriok 60 obra baino gehiago idatzi ditu bere bizitzan, eta honetaz gain Aretxabaletako Banda ere berak sortu zuen. Honetaz gain, irakasle eta Zuzendari lanak ere egin ditu, betik txistuaren munduan.*



Atxabaltako kaleetan, Alarde batean, Demetrio.

## "Guztira 70 pieza inguru idatzi ditut"

• **Noiz eta zergatik hasi zinen?**

• Orain hirurogeita hamar urte izango dira ni hasi nintzela. Nik aita ere txistulari neukan eta lehendabiziko ikasketak berak eman zizkidan. Garai hartan Oñatiko Udalaren Txistulari Banda honela zegoen osatuta: Txistua Ilean Demetrio Iriarte, Txistua 2ean Higinio Iriarte, Silbote Demetrio Iriarte (aita) eta Atabala Uribarri.

Gero, gerra ere iritsi zen eta hortxe urte batzutan txistua jotzeari utzi nion. Dena den, frentean ere jo izan genuen. Hortik aurrera, betik izan dut txistua ondoan, bai interpretatzeko, bai konposatzeko eta baita besteei irakasteko ere.

• **Zerk bultzatuta etorri zinen Atxabaltara?**

• Gerra ondoren, 1944. urtean Aretxabaletako txistulari eta ar-

bitriozko plaza konkurtsora atera zen eta ni bertara aurkeztu nintzen. Baina ez ninduten onartu, Frankoren Erregimenarekiko "maitasun falta" zela eta. Plaza honetarako nire ikasle bat hartu zuten eta Demetrio Atxabaltako sastre moduan finkatu zen. Ondoren nire ikasle zenak plaza utzi zuen eta ni onartu ninduten.

Lehenengo dantza-taldea sortu genuen eta askotan gainera, batenbat falta zenean taldean, neuk jo eta neuk dantzatzen nuen. Gero apurka-apurka txistua irakasten hasi nintzen, eta ondoren 1951 edo 1952an Banda sortu nuen.

• **Zer izan da txistuak eman dizun gauzarik honena?**

- Alaitasuna.
- Txistulari on bat izateko ze kualitate eduki behar dira?
- Lehenengo solfeo ikasi, zenbat eta gehiago hobeto eta

gero lasai hartu eta gauzak ikasiaz joan, ariketa asko eginez.

• **Zure familiakoren batek jarraitu ditu zure pausoak?**

- Bai, Aitor nire bilobak.
- **Txistuaz aparte beste tresnaren bat jo izan duzu?**
- Piano eta batzutan flautina.
- **Pieza asko ere idatzi dituzu...**

• Bai, betik izan dut erretzatsuna konposatzerakoan. Guztira, hirurogeita hamar bat pieza idatzi ditut, guztiak argitaratuak, baina badituz beste batzuk argitaratu gabe.

• **Zein izan da zure pieza ezagunena?**

• 1976an, Bilbon egon zen lehiaketa batetan lehenengo saria atera nuen "Abendua" lanari esker, eta handik urte bira beste hirugarren saria atera nuen "Txistu soñua" obrari esker. Baina pieza asko daukat, beste sari batzuk,



Biribilketa txapelketan 1go saria atera nuen "Laisterka" piezarekin edo txapelketa berean 3.en saria "Erantiotik-Iruñara" lana bidez.

• Txistua jotzeaz eta musika sortzeaz aparte, irakasle moduan ere ibili zara, zer da

**gehien gustatzen zaizuna?**

• Irakasle izatea ez zitzaidan bat ere gustatzen, zaila zen. Jotzea eta sortzea gurago dut.

• **Datorren 29an, omenaldia egin behar dizutela eta, zer daukazu esateko?**

• Lehenengo omenaldia,

1992. urtean Aretxabaletako Udalak egin zidan. Orain txistuarekin dagokionez, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak egingo dit. Kontutan euki behar da, 60 urte baino gehiago daramatzadala txistua jotzen etengabe.



Muru mendiko eguna ospatzen

## Omenaldiko egitaraua

- 9,30etan kalejira Oñatiko kaleetan zehar Eskualdeko txistulariekin.
- 10,30etan Foru Enparantzan, txistulari eta partaide guztien bilketa.
- 10,45etan Udal Koriporazioarekin batera Mikel Deunaren Parrokira Prozesioa.
- 11etan Meza Nagusia.
- 12,30etan Demetrio Iriarte Jaunari Urrezko Domina emateko ekitaldia.
- 13,30 Santa Ana aretoan luntxa.
- 14,30etan Lagunarteko bazkaria Soraluze Ostatuan.
- 19,30etan Txistularien alarde Nagusia Foru Enparantzan.

## Obrarik ezagunenak

- Kontrapas Magdalena
- Gora Kirolak
- Otala
- Alai
- Udaberri (Goiz-Eresia)
- Alkar (Goiz-eresia)
- Aurrera (Biribilketa)
- Irunea deunaren eguna (Fandangoa)



*Hamabostaldi hone-  
tan beste bi ihardunaldi  
jokatu behar ziren, bai-  
na euria oztopo handie-  
gia izan da. Maiatzaren  
7an ez zen partidu bat  
ere jokatu, denak ber-  
tan behera utzi ziren eta  
maiatzaren 14ra pasatu  
zen ihardunaldia.*

*Ihardunaldi hau  
ondo hasi zen, lehenen-  
go bi partiduak jokatu  
ziren eta 3. partidua  
hasi ahala euriak bisita  
egin zuen, Handry &  
Flody 5 Salva por Favor  
7 emaitza zelarik. Hor-  
tik aurrera ez zen beste*



*partidurik jokatu.*

*Antolatzaileek esan  
digutenez, hurrengo as-  
tebukaeran, eguraldiak*

*laguntzan badu, atzera-  
tutako partiduak eta 4.  
ihardunaldia jokatu  
dira.*

## Arlutz saskibaloia Txapelketa

### 4. Ihardunaldia

Fatxus and the others - Salva not dead  
Esguince - Handry-Flody  
D.D.K - Lleno por favor  
Lexe Gurelefa - Las berrugas de ...

### Emaitzak

#### 3. IHARDUNALDIA

Aker 53 - Fatxus 66  
DDK 36 - Esguince 59

**Oharra:** Beste bi partiduak atzeratu egin ziren.

## ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34





Ojala Zelaiko kross lasterketaren irabazleak

## Ojala Zelaiko kross lasterketa

Ojala Zelaiko krossa domekan jokatu zen. Kross hau 2. Challengegarako puntuagarri zen eta bertan 75 partaide izan ziren, Atxabaltar asko zegoela.

Jose Apalanzak eta Ramon Jausorok krosseko errekor barria ezarri zuten 41' 22"55, denborarekin Josek.

Lasterketa goizeko 11etan hasi zen eta 12,30etan bukatu, eta

azkenengo emaitzak honako hauek izan ziren:

Junior mailan 7 partaide izan ziren eta irabazlea Aitor Atxa atxabaltarra izan genuen; emakumeetan 10 partaide, lehena Amaia Intxausti; beteranoetan irabazlea Enrike Kabiketa izan zen. Azkenik Seniors mailan irabazlea Jose Apalantza izan zen eta bigarrena Ramon Jausoro atxabaltarra.


## Txirrindulari lasterketa

Maiatzaren 29an txirrindulari lasterketa izango dugu Atxabaltan. Bigarren mailako kadeeteez neurtuko dituzte indarrak eta 120 bat txirrindulari izango ditugu irteerako lerroan. Oraindik ze talde etorriko diren zehaztu gabe egon arren, egin beharreko ibilbidea finkatua dago dagoeneko. Ibilbidea honako hau izango da: Atxabaltatik Almenera, hemen-dik Epelera, Kanpanzar jeitsi, Eskoriatza, Epelera, berriro ere, buelta Almenerutz, Mugarri eta Mugarritik azken ahaleginak egin beharko dituzte Durana kalera heltzeko, hementxe egongo baita helmuga. Beste urte batzutan egin den ibilbidea kontutan hartzen badugu aldaketa bat somatzen da: orain txirrindulariek Kanpanzar-rrera Epeletik igoko dira eta ez Arrasatetik.



Dorletako Ama txirrindulari Eskolako txirrindulari batek joan zen astean denboraldiko lehen garaipena lortu zuen. Zigor Urain izan zen garaipena lortu zuena. Proba joan zen zapatuan jokatu zen Lazkaon eta bertan 250 txirrindularik parte hartu zuten. Dorletako Amako txirrindulariek ondo kontrolatu zuten proba, eta azkenik Lazkaomendira igoera ikusgarria egin ondoren, irabazle geratu zen.





Goian: Tomas Otxoa, Pablo Urkia, Ramon Barrutia, Jose Makazaga, Aitor Antxia, Jabier Igartua.  
Behean: Demetrio Iriarte, Lorea Leanizbarrutia, Arantxa Bengoa eta Juan Carlos Perez.

Omenaldi bakoitzari, partaide bakoitzak, emale edo hartzai-leak, ematen dio zergati eta zentzuna, eta horren arabera, alai, tristeak edota nifunifakoak izaten dira.

> Datorren igandean, maiatzaren 29an, Demetrio Iriarte Jaunari eskeiniko dioten/ diogun omenaldia ez da lehen aipatutako horietarikoa. Gizon jatorra, aberzale sutsu, musikagile bikain eta txistulari apartekoari ezin zaio

omenaldi arruntik eskeini.

Horregatik, beste askok bezela, gerra galdu eta Atxabaltara etorri zenean, orduan agintariengandik tratatu hotz eta mespretxuak jaso bazituen (" Por ser desafekto al regimen"), guk geure bihotzen berotasuna emango diogu.

Eta horregatik, Banda eratzten, bultzatzen eta zuzentzen egin zituen ahaleginengatik, gure txalo ozenenak eta zintzoenak joko dizkiogu.

Eta bereziki txistu munduan,

irakatsi, eman, egin eta eskeini diguzun guztiagatik.

Maixu, zorionak eta eskerrik asko.

**A. ANTIXIA**



## Barri onak



J.J. Aretxaga

Gaur eguneko gizartean ohituta gaude prisaka ibiltzen, alde batera eta bestera gabil-tza gelditu barik. Asti apur bat daukagunean bizitza trankilago hartzen saiatzen gara gehienok. Hala ta be, badira presaka ibili barik ezin direnak egon. Lehengo egunean Otalazelaiko krosean juniorretan atxabaltar batek irabazi zuen, **Aitor Atxak**. Urrintxoago joanda, joan zen domekan egin zen Mondragoe-Oñati klasikan beste atxabaltar batek irabazi zuen juniorretan, **Amaia Gastañaga** izan zen irabazlea. Eta urrintxoago joanda, asko be urrinago egia esanda; **Joseba Larrinaga** Berlineraino joango da txapelketa batean parte hartzen, 5.000 eta 10.000 metroko karrertan parte hartuko du. Izan be, nahiko ipurterreak dira gazte hauek, astiro-astiro joan besterik ez eta...

**Asier Guenetxeak**, barrez, hemendik aurrera gauzak trankilago hartu beharko ditu. Lehengo egunean Murtzian jausi eta lesionatu egin zen; hori dela ta, kriofanotik pasatu beharko du. Ea laster errekuperetan den.

Arineketak eta karrerak alde batera itxi eta jarri gaitezen trankilago mahai baten inguruan. **66**an jaiotakoek ikastolako afaria egingo ei dute maiatzaren 28an, non eta Barrikan! Esan didatenez Bizkaiko herri txiki bat da Barrika. Gazte hauek ez dakite ze asmau!

Barrika ez, baina barreka gustora egon ginen joan zen eguakotxean. Euskal telebistan sketx lehiaketako irudiak eman zituzten, gero sari banaketa egin zen eta horien artean atxabaltar bat zegoen, Kaja Laboraleko ordezkaria, **Inaxio Garro**. Aretxagazetako lehendakaria delako aitatu beharra euki dut. Aitatu beharreko beste bat, zera, **Andoni Zubizarreta**. Beste liga bat irabazi du. Zorionak. Normala eta dana egiten zaigu atxabaltar batek liga irabaztea. Egia esanda, nik gurago nuen A Coruña-koek irabaztea. Eta ez da errealaren kolore bardinak dituelako.

Barririk onena akaberarako itxi dut. **Iñaki Iturri** zapatuan utziko dute libre. Batenbat kartzelatik libre geratzea da gure txoko honetan inoiz emun dugun barririk pozgarriena. Ongi etorri.



# LASAGABASTER

## ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55




Saria: 7.000 pztako materiala eros dezakezu Zazpigain liburudendan: liburuak, fotokopiak, karpetak...

**BAZKIDEEK  
BAKARRIK IZANGO  
DUTE JOKU BARRI  
HONETAN PARTE  
HARTZEKO AUKERA**



▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..



▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:

**Iñaki Pierrugues**

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, **IDIGORAS AKIZU, J. Bazkide -zenbakia: 110.**

**Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?**



Erantzuna:.....  
Izen-abizenak:.....  
Helbidea:.....  
Tfnoa:.....





**Izena:** Inma Miguel Quintero

**Ofizioa:** Kultur eta kirol teknikaria.

**Afizioa:** Margotzea

**Misioa:** Kultura eta kirol arloan lana ondo egitea

**1.- Atxabaltan bizitzeko leku onena?**

- Beheko aldea, Santakurtz kalean edo herriko plazan bizitzea gustatuko litzaidake.

**2.- Eguneko momenturik onena?**

- Umeak haurtzaindegitik hartzen ditudanean eta familia osoaz nagoenean.

**3.- Zeri beldurra?**

- Bakardadeari.

**4.- Amestutako lanbidea?**

- Baserri Eskola baten lan egitea.

**5.- Jai onenak?**

- San Juan Bezpera.

**6.- Jaiak prestatzea ala bi alaba hezitzea, zer da gatxagoa?**

- Alaba biak hezitzea.

**7.- Atxabaltan zer botatzen duzu faltan?**

- Kulturarekiko interesa

**8.- Oporrak non pasatuko zenituzke?**

- Hondartzatan, edozein hondartzatan.

**9.- Dantzan egitea ala ikustea?**

- Dantzan egitea.

**10.- Gustoko duzun kotxea?**

- Golf GTI.

**11.- Telebista, irratia ala egunkaria?**

- Irratia.

**12.- Erropa komodoena?**

- Txandala.

**13.- Kirolak gustatzen zaizkizu?**

- Bai, jokatzeko futbola gustatzen zait eta ikusteko, barriz, gimasia erritmikoa

**14.- Liga bukaera, zelan ikusi duzu?**

- Ondo, Athletic-a UEFAn sartzea gura nuen eta hortxe dago. Bestela, Deportibok baino Barzelonak irabaztea gehiago gura nuen ez, ederto.

**AITZIBER**

**NIÑOS**



Lezama Merkatal Zentrua  
Tfnoa: 79 13 32

*... euskarari laguntza eder-  
rra emango diozu eta ...*



## 20 EGUAKOTXA

• Elkarrik antolatuta, jaialdia, gaueko 10etan Kirol-Etxean.

## 21 ZAPATUA

• Iñaki Iturriri, ongi etorria.

## 22 DOMEKA

• Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera: **gaztetxoan**

ibilaldi neurtua iparraldean.  
• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Landa - Legutiano - Otxandio - Duna - Igorre - Zornotza - Durango - Kanpantzar - Arrasate - Arretxabaleta.** (95Km)

## 29 DOMEKA

• Zاراia Mendi taldearen urteera: **ekintza kulturala.**

• Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera: **Sierra Salvada-ra.**

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Kanpantzar - Durango - Harri Haundiko bidegurutzea - Urretxua - Bizkaiaiko Begiratokia - Munitibar - Boli-**

**bar - Markina - Elgoibar - Arretxabaleta.** (103 Km)

## 30 ASTELEHENA

• Emakundek antolatuta, antzerkia Zاراia zineman arratsaldeko 7,30etan. **Antzezlanaren gaia: Emakumeak.**

## 2 EGUENA

• Berri Zahar taldeak antolatuta zinea Zاراia zineman, " **Begira nork hitzegin duen orain**".

# ARETXAZOKA

### Lana

✓ Zure aulkia hondatu baduzu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Deitu 79 15 96ra.

✓ OHoko eta 1en eta 2. Goi Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 97.

✓ Edozein motatako lanak garbira pasetan ditut ordenagailuz. Interesatuak deitu 79 77 59 telefonora.

### Lana

✓ Edozein motatako lan, txosten, agiri eta abar ordenagailuz pasatzen dugu. Interesatuak deitu 79 12 49 zenbakira eta Agurtzanez galdetu.

✓ Neska bat umeak, pertsona zaharrak eta gaixoak zaintzeko prest. Goizez, arratsalde eta gauez. Esperientzia.

Interesatuak deitu 79 40 19 telefonora eta Loliz galdetu.

### Etxebizitza

✓ Pisu bat alokatzen da Atxabaltan. Tfnoa: 79 40 19.

✓ Garaje bat alokatzen da Andra Mari auzunean. Interesatuak deitu 77 08 48 zenbakira.

✓ Pisu bat saltzen da Santa Kurtz kaleko 5ean. Hiru logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta sotoa.

Interesatuak deitu 79 90 62 edo 79 75 91ra.



*... atxabaltarron aldizka-  
ria kalean ikusi ahal iza-  
teko ezinbesteko kolabo-  
razioa eskainiko duzu.  
Euskeraren onerako egin  
zaitez bazkide.*

Aretxagazeta Elkartea, Kultur-Elkartea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila



## IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1994-95 ikasurterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela.

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialita-  
teetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari  
begira:

- Haur hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Inglesa
- Hezkuntza musikala

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA. Tel.: 943/71 41 57  
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)